

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak eta Lizarrako alkateak hiriburutza-gutunaren gaia aztertu dute

Nafarroako Gobernuak merindadeko herri nagusiekin konpromiso bat izateko beharra dagoela onartu du

Lunes, 28 de septiembre de 2015

Hiriburutza-gutuna izan da gaur goizean Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta Lizarrako alkate Koldo Leozek izandako bileran jorratutako gai nagusia. Gobernuak onartu du merindadeko herri nagusiekin eta egiten duten lanarekin konpromiso bat hartzeko beharra dagoela; Ega hiriko alkateak, berriz, gizarteak eskatzen zuen kudeaketa-aldaketaren alde lan egiteko beharra defendatu du.



Barkos Lehendakaria Lizarrako alkatearekin.

Barkos Lehendakariak eta Lizarrako alkateak gaur izandako bilkura Iruñeko alkate Joseba Asironekin hasitako bilera-sortaren barnean sartzen da, eta iragan astean jarraipena izan zuen Tuterako alkate Eneko Larrarterekin. Barkos Lehendakariak adierazi du Nafarroako alkateekin elkarrizketa-bideak ezartzeko borondatea duela, eta gaur aztertzekeo gai asko zegoela jakinarazi du, haien artean, hiriburutza-gutuna; harekin, merindadeko herri nagusiek egindako lana aitortuko zen.

Koldo Leozek, berriz, esan du bere hiria, Lizarra, eskaintzera joan dela garai politiko berrian parte har dezan, Nafarroan hasitako aldaketan parte har dezan. Hiriburutza-gutunari dagokionez, Lizarrak, adibidez, eskaintzen dituen zerbitzuen zenbatekoa nola kalkulatu aztertu beharko dela adierazi du.